



## Baratze ekologikoa

Baratze ekologikoak ekosistema zaintzen eta inguruneko biodibertsitatea hobetzen laguntzen du. Naturan, giza jarduera jasangarria barne hartzen duen ekoizpen modua da, produktu, pestizida eta ongarri kimikoei uko egiten diena. Landare ezberdinen jatorria eta natura ere kontutan izaten da, ez daitezen transgenikoak izan ezta hazi hibridoak ere.

Baratze ekologikoa bertako inguruneko kultur egituraren murgilduta dago eta bertako paisaiaren partaide da. Metereologiaren, toki baten orografiaren baita bertako jendearen sinismenen eta ohituren arabera ere eratzen da. Euskal Herriari dagokionez, Baserria da natur eta kulturaren arteko lotura adierazten duena, gure "kultur paisaia" sortuz.



## Baratzea urtarrilean

Urte hasierarekin batera, babak ereitetik hasi gaitzke. Lekaduna da, eta beraz bere sustrai handiek nitrogeno ugari isuriko dute lurrera (kontuz beraz simaurrarenekin). Errenkada luze bat zabaldu eta han hazia jarri. Errenkada batetik bestera 50-60 bat zentimetro utzi, eta aletik alera 10en bat zentimetroko tartea. Parra edo hesolatxoren batzuk jarri, landarea hazten denean erori ez dadin. Uzta udaberriaren emango du, apiril-maiatz aldera edo. Ur asko behar du. Erdi itzaletan jarrita ere ongi etorriko da eta hotzari ez dio beldur handirik, -5C graduko tenperaturetan ere lasai egoten baita. Babaren kasuan zenbait izurriteri adi-adi egon beharko dugu. Xaboa eta tabako saldarekin aurre egitea komenigarria da, hostoz-hosto nahasketa hau banatzeak.

Baratxuria ere landatzeko sasoiaren gara oraindik. Lur ondartsua eta artoa gustatzen zaio, urak erraz alde egiteko (hemengo lurra ordea oso buztintsuak dira), eta simaurra ere justukoa eta zaharra bada hobe. Horregatik, baratxuria landatu aurretik, kare ondar piska bat botatzea ez legoke gaizki. Ereiteko lanei dagokionean berriz, baratxuri-begia bera lurrian sartu behar da, 8 bat zentimetroko sakoneran eta batetik bestera 15 bat zentimetroko tartea utziz. Ilara batetik bestera berriz 25 zentimetro utzi. Landarea hazten denean, tarteka inguruko belarrak kendu eta zenbait hosto ere bai, eguzkia barruraino sartu dadin. Gaitzen bat edo beste hartzeko arriskua duenez, tarteka errautsa zabaldu, hauei aurre egiteko. Uzta jasotzerako garaian, egun batzuk lehenago (ekaina aldera), landarea bera zanpatu edota ondoan dauden hiru bat landara elkarrekin lotu.

Euri asko egin duenez, lurra bere onean mantentzeko tarteka karea zabaltzea gomendagarria da. Kontuz, simaurra edo ongarriren bat bota badiogu ez da komeni karea nahastea. Biak batera ez dira bota behar. Kareak, lurra harrotu, eta lurra errazago oxigenatu dadin laguntzen du. Izan ere, Euskal Herriko isurialde atlantiarreko ia lur gehienak bustintsuak dira. Lurra lokaztu eta lur itoago, itxiago eta azidoago bihurtzen dute. Eta ondorioz, lurreko mineral eta elikagaiak lurrian korapilatuta gelditzen dira, barazkiak horietara iristeko zailtasunak izaten dituzte. Kareak korapilo horiek askatzen lagunduko digu. Lurra harrotuko digu eta azidotasuna murriztu. Honela, aire gehiago sartuko da lurrera eta urak ere errazago zirkulatuko du. Honela, lurreko mikroorganismoak hobeto biziko dira, materia organikoa errazago deseginez eta lurriaren kalitatea eta osasuna bermatuz.





## Ingurunea

Sagarrondoak bere zainketak behar ditu, eta horietako bat orain egitea komeni da. Kare nahasketa bat, karesnea bota behar zaio. Kare bizia, uretan urtu eta hil egingo da, eta ondoren buztin hautsa edo behi simaurra nahastu dakioke (edo biak). Nahasketa hau enborrean eta adar nagusietan eman behar zaio. Honela, zenbait xomorro (inurriak esaterako) atzeratuko ditu lehenengo kimu berriak irteten direnerako. Euririk egingo ez duen egunetan ematea komeni da.

Eta azkenik, neguko ilunari eta zuhaitzek duten biluztasunari argi pixka bat ematen dion zuhaixka bat aipatu nahiko genuke, Igartubeitin kolore izugarritz hasi duena 2018 urtea. Bai, zumea edo sahatsaz ari gara, 3 bat metro hazten den zuhaixka da, neguan hostoak galtzen dituena. Beste zuhaitzek hostoak galdu ondoren beren ikusgarritasuna galtzen duten moduan, sahatsak inguruko lilura guztia bereganatzen du. Izan ere agerian geratzen diren bere adaxkek, ori kolore bizi-bizia hartzen dute, sugarraren pare. Igartubeiti baserriaren aurrean zenbait zume ditugu, eta baserriaren egurrezko eraikuntzarekin kontraste ederra sortzen du, negua alaitzeko. Gainera, baserrian zumearen adar luzeak saskiak eta aulkien oinarriak egiteko erabili izan dira.



**ONGI ETORRI IGARTUBEITIKO  
BARATZE EKOLOGIKORA**